

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 20.000 euro emango ditu landaguneko emakumeek elkarteetan parte hartzea sustatzeko proiektua finantzatzeko aldera

*Laguntzak sentsibilizatzeko eta hedatzeko jarduerak finantzatzeko ditu, eta horiek berdintasuna lortzeko bidean lagunduko dute*

Martes, 23 de agosto de 2011

Nafarroako Gobernuak 20.000 euro emango ditu Nafarroako landaguneko emakumeek elkarteetan parte hartzeko proiektu bat 2011an finantzatzeko aldera; proiektua AFAMMER Nafarroako Landaguneko Familien eta Emakumeen Elkarteak sustatu du. Elkarteak 1982an sortu zen eta 1.500 kide eta ordezkari ditu Lizarrako, Erriberriko, Iruñeko eta Tuterako Merindadeetan.



Nafarroako Gobernuak Nafarroako landaguneko emakumeek parte hartzeko proiektu batean ari da elkarlanean

Azken urteetan zehar, AFAMMERek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzearekin loturiko hainbat proiektu garatu ditu; horietako askok Berdintasunerako Nafarroako Institutuaren diru-laguntza jaso dute diru-laguntzen deialdiaren bidez.

### Proiektuaren garapena

Proiektuaren izenburua "Nafarroako landaguneko emakumeen parte hartzea elkarteetan: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea" da, eta horren helburuak landaguneko emakumeen elkarteetako mugimenduari mesede egitea, Nafarroako emakumeen elkarteen arteko lankidetzak sustatzea eta haien egoera azalartzea eta emakumeen eskubideekin zerikusia duten egun bereziak aldarrikatzea dira.

Helburu horiek lortzeko, Nafarroako Landaguneko Emakumeen eta Familien Elkarteak bi lan ildo garatzeko ditu: sentsibilizazioa eta hedatzea. Lehenengoan herritar guztiei zuzenduriko ekintzak proposatu dira; horretarako, martxoaren 8a, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna, urriaren 15a, Landaguneko Emakumearen Nazioarteko Eguna, eta, azaroaren 25a, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Nazioarteko Eguna ospatuko dira. Aurreikusitako ekintza horietatik urtero ospatzen den

Landaguneko Emakumearen Eguna nabarmendu behar da, berrehundik gora emakumek parte hartzen baitute. Tafallako genero indarkeriaren aurkako sentsibilizazio ekitaldia ere azpimarratzekoa da.

Informazioari eta hedatzeari dagokionez, "Desarrollo Rural" aldizkaria plazaratuko da. Informatzeko eta hedatzeko Nafarroako bitarteko bakarra izango da eta landaguneko emakumeen egoerari buruzko informazioa emango du. Lau hilean behin argitaratuko da eta 3.000 aleko tirada izango du.

Aldizkari hori kaleratzearekin batera AFAMMER-NAFARROA webgunea ere sotuko da. Webgune horri esker, landaguneko emakumeen elkarte guztien arteko informazioa trukatu ahal izango da.

Berdintasunerako Nafarroako Institutuak proiektuaren jarraipena egin eta horren memoria jasoko du, garatutako ekintza guztien inguruko informazio zehatza eta proiektuaren ebaluazioa izango dituen.

Mota horretako jarduerak bat datoz 2006-2010eko Nafarroako Foru Erkidegoko emakume eta gizonentzako Aukera Berdintasunaren I. Planarekin. "Emakumeen botere-ahalmen eta parte-hartze sozial eta politikoa" 8. arloak, 1995ko Pekingo Adierazpenaren 13. epigrafea jasotzen duena, zera ezartzen du: "emakumeen parte-hartze politiko eta soziala emakume eta gizonentzako aukera berdintasuna lortzeko oinarria izan behar da". Hala ere, Nafarroako emakumeen parte-hartze politikoa, soziala eta elkarteetako partaidetza oraindik ere gutxiengoan dagoenez, Planaren helburua Nafarroako elkarteetako emakumeak eta haien partaidetza babestu eta bultzatzea da.